



Pello Ruiz Cabestany, Gatorade taldeko txirrindulari gipuzkoarra da Vuelta '92 probako lider berria, atzo Arcos de La Frontera-Jerez de La Frontera arteko taldekako erlojupekoa —32 ki-

lometro— korritu ondoren. Gatoradek iragarpen guztiak hautsi zituen, etapa irabazteko faborito nagusien artean ez bait zen ageri. Carrera, Clas-Cajastur, ONCE eta Banesto bost lehenen artean

sailkatu ziren. PDM eta Buckler talde holandarrak izan ziren erlojupeko honetako galtzaile handienak, bederatzigarren eta hamaikagarren postuetan sailkatu bait ziren.

# Pello Ruiz Cabestany, lider berria

## Gatorade talde italiarra izan zen indartsuena taldekako erlojupekoan

PELLO AIESTARAN / BILBO

Atzo Vueltako bigarren ihardunaldia jokatu eta lehen ezustekoa gertatu zen, arratsaldean Arcos de La Frontera eta Jerez de La Fronteraren arteko taldekako erlojupekoan. ONCE, PDM, Buckler eta Clas-Cajastur ziren, besteak beste, proba horretan garaipena lortzeko faborito nagusiak.

Ibilbidea txirrindulari indartsuentzat egokia zen, desarrollo handia sartzeko modukoa eta horren ondorioz zenbait talde ez ziren adituen kineletan sartzen. Horien artean zegoen, hain zuzen ere, Gatorade taldea. Baina atzo Pello Ruiz Cabestany eta Marco Giovannetti lider dituen taldeak iragarpenak hautsi nahi izan zituen, eta lortu ere lortu zuen azkenean.

Talde indartsuenen aurretik atera ziren italiarrak, eta benetan denbora bikaina egin zuten. Dena den, oraindik helmugara heltzeko falta ziren taldeak ikusita, denbora hori hobetzeko aukera ere izango zutela zirudien. Baina aurrena Banesto, gero Seguros Amaya, TVM, Seur, Clas, Lotus, Carrera, PDM, ONCE eta Buckler heldu ziren, eta Pello Ruiz Cabestanyk lidergoa eskuratzeko aukera izan zuen.

Atzoko ihardunaldian galtzailerik egon bazen, hori Buckler taldea izan zen dudarik gabe. Hamaikagarren postua lortzea, irabazlearengandik minutu t'erdira, porrot handia da Nijdam, Van Hooydonck, Rooks edo De Vries bezalako txirrindulari bikainak dituen taldearentzat. ONCErentzat ere ez zen egun ona izan. Herminio Diaz Zabala, Miguel Angel Martinez eta Neil Stephens galdu zituen Manolo Saizen taldeak eta bakarrik sei txirrindulariekin heldu ziren amaierara. Dena den, eta arazoak kontutan izanda, denbora nahiko ona egin zuela esan daiteke.

**ABDOUJARAPOV** Carrera taldearentzat atzoko ez zen egun txarra izan. Djamilidine Abdoujaparov sprintean irabazi zuen goizeko etapa —Vuelta honetan lortzen duen lehenengoa hain zuzen ere— eta arratsaleko erlojupekoan bigarren postua eman zio-



ONCEk suerte txarra izan zuen, baina emaitza ez zen hain txarra izan.

ten hasieran epaileek, gero okerra zuzendu eta seigarrenarekin konformatu behar izan bazuten ere.

Tony Rominger suitzarrak,

bestetik, segundu garrantzitsuak lortu zituen. Clas taldeko gizonak asko borrokatu zuen bonifikazioak lortzeko, eta azkenean batzuz lortu zituen. Arratsaldean

Juan Fernandez taldeak lortutako hirugarren postua ere aipagarria da. Faboritoen artean agertzen zen eta iragarpenak bete zituen.

### ★ Nire butakatxotik

JUAN LUIS ZABALA

## Etapa harrigarri eta arraro samarra

**H**erenegun ez baina atzo bai, izan zen ezustekorik taldekako erlojupekoan. Harrigarri eta arraro samarra izan zen, guztiok espero bait genuen ONCE, PDM eta Bucklerrek Gatoradekoen denbora hautsiko zutela. ONCEkoek oso zorte txarra izan zuten, hiru gupil zulatu bait zitzaizkien oso denbora gutxian, eta PDM eta Bucklerrek, berriz, ez zuten behar eta espero bezala asmatu.

Ni beti izan naiz taldekako erlojupekoen aurkakoa, Alvaro Mejia eta Fabio Parra bezala-

koentzat bidegabekeria hutsa baino ez direlako izaten, besteak beste. Aldez aurretik jakinekoa izanagatik ere bidegabekeria beti, nire ustez. Taldeen arteko denbora tarteak ahalik eta txikiak izan daitezela nahi izaten dut horrelakoei begira nagoenean.

Atzo, azkenean ere, ez zen tarte handiegirik izan talde nagusien artean, eta Mejia eta Parrak ere ez zuten aparteko nahigaberik izan. Beraz, lehenbailehen ahaztu atzoko eta aurrera begira dezatela.

Telebistako irudien eskaintzaren aldetik bai izan dezakeela

edertasunik karrera mota honek, aitortu beharko dugu hori behintzat, baina atzokoan ez genuen bista gehiegi gozatzeko aukerarik izan alde horretatik ere. Buckler taldearen irudi batzu bai, ikusi genituen, ederrak, errelebo jarraitu eta egokiak, baina askoz gehiagorik ez.

Kontuak kontu, Pello Ruiz Cabestany dugu lider berria. Saiatuko dela inork ez du duda egiten, baina nekez pentsa daiteke Pello horiari Madrileraino eutsi ahal izango dionik. Disfruta dezala, beraz, soinean duen artean!



Juan Fernandez.

**Juan Fernandez:**  
«Clasen erlojupekoa bikaina izan da»

JEREZ

Estreineko etapan Clas taldearen lana eskasa izan zen, eta faboritoen artean Fede Etxabek galdu zuen prologoan denbora gehien. Atzo ordea, taldekako erlojupekoan izugarritzko lana egin zuen Clas Cajastur taldeak. Garaipena ezin izan zuen lortu, Gatorade ikaragarri ibili zelako. Baina Juan Fernandez oso pozik ageri zen etapa amaieran. «Egia da bai, pozik nago. Eta erlojupekoan hain lan ona egiteak ez nau ezustean harrapatu; aurreneko postua ere izan dut buruan. Atzo denbora gehiegi galdu genuen, Etxabek batez ere, eta gaur erronka handia genuen. Faboritok alde handiagoo ateratzea oso arriskutsua izango bait zen. Baina korredoreek ondo erantzun dute».

Goizeko saioan, Tony Rominger suitzarrak eraso egin zuen hirugarren mailako mendatean, handik 500 metro ingurura tarteko helmuga bait zegoen; eta 6 segunduko saria. Zuzendari arabarraren esanetan, aurretik pentsatu gabeko eraso izan zen. «Romingerrek aukera ona ikusi du zortzigarren postutik bostgarrenera pasatzeko, bonifikazioari esker, esfortzu handirik egin gabe. Berak bazekien indarrak arratsalderako gorde behar zituela». Horrela egin zuen itxuraz, gero lan bikaina egin bait zuen Clasek.